



OINARRIZKO GIDA. BATXILERGOKO APARTEKO SARIEN APLIKAZIOA

INFORMAZIO OROKORRA

Baimenak: aplikaziora sartzeko baimena dute matrikulazioa kudeatzeko akreditazioa duten langileek.

Aplikaziorako sarbidea: Hezkuntza Sailaren ataritik sar daiteke.



Aplikazioan gaudela goiko eskuineko barran honako hau egin daiteke:

- Hizkuntza aukeratu
- Oinarrizko gida kontsultatu informazio-ikonoan



Laguntza: CAU **945207256** (1. aukera)

IKASTETXEAREN KUDEAKETA

Ikastetxetik ikasleen izen-ematea egiteko, «Ikastetxearen kudeaketa» menua zabaldu behar da. Azpimenu bat irekitzen da 3 aukerarekin:

- Ikastetxeko zuzendaritza-karguak
- Izena emateko eskaera
- Itxiera

IKASTETXEKO ZUZENDARITZA-KARGUAK

Emaitzak: klikatu botoi hau zuzendaritza-karguen datuak ikusteko.

Datuak aldatzeko, klik bikoitza egin behar da aldatu nahi den eremuaren barruan. Datu berriak gordetzeko, kurtsorea eremu baten barruan jarri eta **ENTER** sakatu behar da.

Berria: zuzendaritzako kargu berriak sartzeko, sakatu "berria" botoia eta bete eremuak.



IZENA EMATEKO ESKAERA

Deialdian parte hartu nahi duten ikasleak bakarrik inskribatuko dira.

Berria: ikasle bat inskribatzeko, sakatu «berria» tekla, eta bete fitxa bakoitzean eskatutako eremuak:

“Datu pertsonalak”: bete beharreko eremuak betetzea. **Gorde** botoia sakatu.

“Egindako ikasketak”: atzerriko hizkuntza eta Batxilergoan egindako modalitatea markatu. **Gorde** botoia sakatu.

«Proba»: proba egiteko ikasgaiak aukeratzea. Gorde botoia sakatu..



Inskripzioa inprimatu eta ikasleari eman. Ikasleak sinatuta itzuli beharko dio ikastetxeari.

“Egoera”: inskripzio-eskaeraren egoera adierazten du (onartua, izapidetzen ari dena, baztertua).

Emaitzak: klik egin «emaitzak» erlaitzean, sartutako ikasleen datuak bilatzeko. Erregistroren bat aldatu nahi izanez gero, hautatu ikaslea eta egin aldaketak. **Gorde** botoia sakatu.

ITXIERA

«Itxi» aukera klikatzean, azpimenua zabalduko da:

- Itxiera-simulazioa
- Ikastetxea ixtea

Izena emateko prozesua amaitzeko, **urrats hauek egin behar dira**:

“Itxiera simulazioa”: izena eman duten ikasleen zerrenda zuzena dela egiaztatzeko balio du. Sortutako PDFak «zirriborroa» ur-marka darama. Simulazioa nahi adina aldiz egin daiteke behin betiko itxi aurretik.

“Ikastetxea ixtea”: botoi hori sakatuta, ikastetxea behin betiko itxiko da eta **izena emateko prozesua amaituko da**.

Behin betiko itxiera egitean, PDF bat sortuko da inskribatutako ikasleen zerrendarekin, eta ikastetxeko iragarki-taulan argitaratu beharko da.

IZENA EMATEKO EPEA AMAITUTA, EZ DA APLIKAZIOA IREKIKO